TOKIKO GOBERNU BATZORDEA | JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Gizarte-etxea
EGUNA / FECHA: 21/9/2016
HASIERA / INICIO: 20:30
AMAIERA / FINAL: 20:45

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA/ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera

Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Tokiko Gobernu Batzordea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak.

Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En el Ayuntamiento de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

**1.- Aurreko saioko akta.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen 2016ko irailaren 7ko saioko akta onartzea.

**1.º.- Acta de la sesión anterior.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el acta de la sesión de 7 de septiembre de 2016.

**2.- Altamirako Haur Jolas Eremua Konpontzeko lanen esleipena.-**

Ikusita Altamirako haur-jolas eremua konpontzeko lanak kontratatzeko aurkezturiko eskaintzak, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen lanok Amuriza Cubiertas y Rehabilitaciones S.L. enpesari esleitzea, 78.900 €-an, eskaintzarik onena aurkeztu izanagatik.

**2.º.- Adjudicación obras de Mejora de la Zona de Juegos Infantiles de Altamira.-**

Vistas las ofertas presentadas para la contratación de las obras de Mejora de la Zona de Juegos Infantiles de Altamira, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó adjudicar las mismas a la empresa “Amuriza Cubiertas y Rehabilitaciones S.L.” por un importe de 78.900 €, por tratarse de la oferta económicamente más ventajosa.

**3.-. San Bartolomeko Haur Jolas Eremua Konpontzeko lanen esleipena.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen onartzea Urre, S.A. enpresak San Bartolomeko haur-jolas eremua konpontzeko aurkezturiko aurrekontua, 11.424,00 €-an gehi BEZ.

**3.º.- Adjudicación obras de Mejora de la Zona de Juegos infantiles de San Bartolomé.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el presupuesto presentado por la empresa Urre, S.A., para la mejora de la zona de juegos infantiles de San Bartolomé, por un importe de 11.424,00 € más IVA.

**4.- Mapeko pistako sastrakak kentzeko aurrekontua.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen onartzea Desbroces Ordorika enpresak Mapeko baso-pistako sastrakak kentzeko aurkezturiko aurrekontua, 4.220 €-an.

**4.º.- Presupuesto de desbroce de la pista de Mape.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar el presupuesto presentado por la empresa Desbroces Ordorika, para el desbroce de la pista forestal de Mape, con un presupuesto de 4.220 €.

**5.- Kontratua Orangekin.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen onartzea Bollegiko ur-biltegiko lursail baten errentamendu-kontratua aldatzeko proposamena, Orange Espagne, S.A.U.-k telefonia mugikorreko ekipoa instalatzeko aurkeztua, urteko errenta 2.700 €-koa gehi BEZ izan dadin.

**5.º.- Contrato con Orange.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la propuesta de modificación del contrato de arrendamiento de un terreno en el depósito de aguas de Bollegi para la instalación de un equipo de telefonía móvil presentada por Orange Espagne, S.A.U., para que la renta anual pase a ser de 2.700 € anuales más IVA.

| 6.- Landa-eremuak garatzeko diru-laguntzak.- | 6.º.- Subvenciones para desarrollo de zonas rurales.- |
|---|---|
| Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion abuztuaren 23ko 136/2016 Foru Dekretua argitaratu dela. Horren bidez, Bizkaiko landa-eremuen garapenerako diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzen dira, eta 2016rako deialdia egiten da.<br>Diruz lagun daitekeen proiektu bat aurkezteko aukeraren aurrean, aztertu zen komenigarria litekeen Arkitekto Aholkulariak San Kristobaleko ermita eta inguruko urbanizazioa konpontzeko idatzitako txosten balioetsia aurkeztea.<br>Elorrieta jaunak adierazi zuen erabakitzeko epea laburra zela eta diru-laguntza horien deialdiaren berri lehenago eman behar zela.<br>Proiektuaren edukia aztertuta, ikusi zen honakoan zetzala: ermitaren hegoaldeko horma sendotu, alde horretan bertan arkupea eraiki, fatxada nagusian dagoenari jarraipena emanez, eta eremu guztia urbanizatu, Mape ibairaino.<br>Horrez gain, aipatu zen Elizarekin hitzarmena sinatzeke dagoela nork zer lan finantzatuko duen eta zein lagapenen ordez zehazteko, Udalak ezin baititu berea ez den eraikin batean hobekuntza-lanak doan egikaritu, baizik eta burutzen den inbertsioaren balio bereko lursailak lortzearen truke.<br>Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:<br>1.- Elizarekin hitz egiten hastea aurretik adierazitakoetan oinarrituriko hitzarmena lortzeko.<br>2.- Diru-laguntza eskatzea 136/2016 Foru Dekretuaren arabera, txosten teknikoan jasotako lanen lehen fasea egikaritzeko. | La Junta de Gobierno Local fue informada de la publicación del Decreto Foral 136/2016, de 23 de agosto, por el que se aprueban las bases reguladoras de las subvenciones para el desarrollo de las zonas rurales de Bizkaia y se efectúa convocatoria para 2016.<br>Ante la posibilidad de presentar un proyecto subvencionable se analizó si convenía presentar la memoria valorada que tiene redactada el Arquitecto Asesor para la reparación de la ermita de San Cristóbal y la urbanización del entorno.<br>El Sr. Elorrieta manifestó que el plazo para decidir era muy breve y que había que haber informado antes de la convocatoria de estas ayudas.<br>Analizando el contenido del proyecto se vio que consistía en la consolidación de la pared lado sur de la ermita, la construcción de un soportal en este mismo lado dandole continuidad al existente en la fachada principal y la urbanización de todo el ámbito hasta el río Mape.<br>También se comentó que estaba pendiente de suscribir un convenio con la Iglesia para que se concretasen qué obras financiaba cada uno y a cambio de qué cesiones, ya que el Ayuntamiento no podía ejecutar obras de mejora de un edificio ajeno de forma gratuita, sino a cambio de la obtención de terrenos (algunos en propiedad y otros en forma de cesión de uso) por un valor equivalente a la inversión que se realice.<br>A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:<br>1.º.- Iniciar las conversaciones con la Iglesia para llegar a un acuerdo basado en los principios anteriormente reflejados.<br>2.º.- Solicitar subvención al amparo del Decreto Foral 136/2016, para la ejecución de una primera fase de las obras incluidas en la memoria técnica. |
| **7.- Erabilitako olioa jasotzeko kontratua.-** | **7.º.- Contrato de recogida de aceite usado.-** |
| Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen etxeko olio erabiliaren edukiontzi bidezko gaikako bilketarako kontratu txikia onartzea Rafrinor, S.L enpresarekin, urtean 3.500 €-ko (BEZ gabe) aurrekontuarekin. | La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el contrato menor para la recogida selectiva de aceite doméstico usado mediante contenedor con la empresa Rafrinor, S.L. y con un importe anual de 3.500 €/año (IVA excluido). |
| **8.- Busturia Independiente Taldearen proposamena Mape ibaiari buruz.-** | **8.º.- Propuesta de Busturia Independiente Taldea sobre el arroyo Mape.-** |
| Jarraian, Busturia Independiente Taldearen proposamena irakurri zen:<br>“Uda honetan, Mape ibaiaren egoera penagarria izan da, ia irailera arte lehor egon baita. Mape ibaian egiten diren ur- | Seguidamente se dio lectura a la propuesta de Busturia Independiente Taldea en la que se expone que:<br>“La situación del río Mape este verano ha sido lamentable, ha estado seco casi todo septiembre. Las captaciones que se |

bilketak legez kanpokoak dira: Iruerreketako ur-bilketak % 100ean (ez dute ur-tanta bat bera ere pasatzen uzten) eta Olarretakoa ia % 100ean.
Argi dago ez dela betetzen legeak eskatzen duen "GUTXIENEKO UR EMARI EKOLOGIKOA". Horrez gain, hondakinak isurtzen dira.
Hori gertatu bitartean, Mundaka, Sukarrieta eta Busturian ur-erabilera etengabea izan da hondartza, gasolindegi, futbol-zelai, baratzeetan eta abarretan.
URA arduragabetasun horren jakitun bada ere, ez du ezer egin gure ibaiaren egoera bideratzeko."
Hori dela eta, proposatzen dute Uraren Euskal Agentziari honako agiriak eskatzea:
- 2015eko udako ur-bilketetan (hiru ur-bilketa) egindako ikuskapenen emaitzen kopia.
- 2015eko udako isurketetan egindako ikuskapenen kopia.
- 2016ko udako ur-bilketetan (hiru ur-bilketa) egindako ikuskapenen emaitzen kopia.
- 2015 eta 2016. urteetan Busturialdeko Ur Partzuergoaren kontra hasitako zehapen-espedientearen kopia, halakorik balego.
- URA Mape ibaiaren arazoaren jakinaren gainean egon bada, ibaien inguruko araudia betetze aldera 2015ean eta 2016an hartu dituen neurriak.
- Ur-bilketa arduragabe horiek egiten jarraituz gero, Mape ibaiaren gaineko araudia betetze aldera hartuko dituen neurriak.
Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Busturia Independiente Taldearen proposamena onartzea.

realizan en el río Mape son ilegales: Las dos captaciones de Iruerreketa son del 100% (no dejan pasar ni una gota de agua) y el de Olarreta casi del 100%.
Está claro que el "CAUDAL MÍNIMO ECOLOGICO" que exige la ley no se respeta. Aparte de esto hay vertido de desechos.
Mientras sucedía esto, el uso del agua en Mundaka, Sukarrieta y Busturia ha sido incesante, en las playas, gasolineras, campo de fútbol, huertos.....
A pesar de que URA es consciente de ésta despreocupación, no ha hecho nada para encaminar la situación de nuestro río".
Por ello proponen solicitar a la Agencia Vasca del Agua–Ur Agentzia la siguiente documentación:
- Copia de los resultados de las inspecciones realizadas de las captaciones (tres captaciones) del verano de 2015.
- Copia de las inspecciones de los vertidos del verano del 2015.
- Copia de los resultados de las inspecciones realizadas de las captaciones (tres captaciones) del verano de 2016.
- Copia del expediente sancionador, si es que lo hay, contra el Consorcio de Aguas de Busturialdea el año 2015 y 2016.
- Si es que URA ha estado al tanto del problema del río Mape, medidas que ha tomado el año 2015 y 2016 para cumplir la normativa de ríos.
- Si continúan con estas captaciones negligentes el año que viene, qué medidas tomará para respetar la normativa del río Mape.
La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar la propuesta de Busturia Independiente Taldea.

**9.- Musika-ikastaroetarako diru-laguntzak.-**

**9.º.- Subvenciones para cursos de música.-**

Kontuan hartuta aurkezturiko eskaria, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ondoko diru-laguntza ematea, musika-ikastaroak Segundo Olaeta Musika Eskolan egin izanagatik:

Vista la solicitud presentada, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó concederle las siguiente ayuda por la asistencia a cursos de música en la Escuela de Música Segundo Olaeta:

| Nombre | Centro | Abonado | Diferencia-Acuerdo |
|---|---|---|---|
| M. L. L. A. | Segundo Olaeta | 470,40 | 121,40 |

**10.- Busturia Pilota Elkartearen idazkia.-**

**10.º.- Escrito de "Busturia Pilota Elkartea".-**

Kontuan hartuta U. I.ek Busturia Pilota Elkartearen izenean aurkezturiko idazkia, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen urrian izango den Busturiko VIII. Gaztetxoen Esku Pilota Jaian partea hartzea, 480 €-ko diru-laguntza emanez (% 80 aurretik emango da, eta gainerako % 20a gastuen likidazioa eta zuriketa aurkeztu ondoren).

Visto el escrito presentado por U. I., en representación de "Busturia Pilota Elkartea", la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó participar en la organización de la "Busturiko VIII. Gaztetxoen Esku Pilota Jaia", que se celebrará el mes de octubre, con una colaboración económica de 480 €, que se abonarán el 80% por anticipado y el 20% restante previa presentación de liquidación y justificación de gastos.

**11.- Paresiko jaien likidazioa.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Paresiko jaien likidazioa onartzea, batzorde antolatzaileak aurkeztutakoa, 973,00 €-ko emaitza negatiboarekin.

**11.º.- Liquidación Fiestas Paresi.-**

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar la liquidación de las fiestas de Paresi presentadas por la comisión organizadora, con un resultado negativo de 973,00 €.

**12.- Busturlagun Kirol eta Kultur Elkartearen idazkia.-**

Kontuan hartuta Busturlagun Elkarteak aurkezturiko idazkia, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen baimena ematea Aingerubide lokala erabil dezan Kardio Kick Boxing eskolak emateko, astearte, ostegun eta ostiraletan 20:30etik 21:30era.

**12.º.- Escrito Asociación Deportivo Cultural “Busturlagun”.-**

Visto el escrito presentado por la Asociación “Busturlagun”, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de utilizar el local de Aingerubide, para dar las clases de Kardio Kick Boxing, los martes, jueves y viernes en horario de 20:30 a 21:30.

**13.- Tenis Klubeko zuhaiztiaren arrisku-egoeraren inguruko espedientea.-**

Kontuan hartuta pasa den apirilaren 5ean J. U. U.k idazkia aurkeztu zuela Tenis Klubeko zuhaiztiaren arrisku-egoeraren inguruan; kontuan hartuta udalak erabaki zuela establezimenduaren jabearekin harremanetan jartzea (orain arte ezin izan da); kontuan hartuta J. F. L. d. A. abokatuak, U. jaunaren izenean, aurkezturiko idazki berria, udalak arriskuaren aurrean jardun dezala eskatzeko; kontuan hartuta Udal Arkitekto Aholkulariak igorritako txostena (arriskua dagoela egiaztatzen du, eta proposatzen du eskaera egitea M. Z. G. “Tenis” lursailaren jabeari bide publikoaren ondoko zuhaitzak ken ditzan, haren gainera erori ahal izatea saiheste aldera); Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:

1.- Eskaera egitea M. Z. G. “Tenis” lursailaren jabeari hilabeteko epean bide publikoaren ondoko zuhaitzak ken ditzan, haren gainera erori ahal izatea saiheste aldera.

2.- Zuhaitzak moztu aurretik, udalean baimena eskatu beharko da. Horretarako, hauek aurkeztu beharko dira: egingo diren lanen aurrekontua, lanak egingo dituen enpresaren izena eta segurtasun- eta osasun-plana, mozketa nola egingo den eta pertsonei eta bide publikoari ez eragiteko zein segurtasun-neurri hartuko diren deskribatuta.

**13.º.- Expediente sobre situación de riesgo del arbolado del pub Tenis.-**

Visto que el pasado 5 de abril J. U. U. presentó un escrito en relación a la situación de peligrosidad que planteaba el arbolado del pub Tenis; que el ayuntamiento acordó ponerse en contacto con la propietaria del establecimiento para buscar un acuerdo sobre las medidas a tomar, lo que no ha sido posible hasta la fecha; visto el nuevo escrito presentado por el letrado J. F. L. d. A., en representación del Sr. U., solicitando la actuación urgente del ayuntamiento ante la peligrosidad existente; visto el informe emitido por el Arquitecto Asesor Municipal en el que acredita el riesgo existente y se propone que se requiere a la propietaria de la parcela del “Tenis”, D.ª M. Z. G. para que proceda a la retirada del arbolado existente junto a la vía pública para evitar una posible caída sobre la misma, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

1.º.- Requerir a la propietaria de la parcela del “Tenis”, D.ª M. Z. G., para que, en el plazo de un mes, proceda a la retirada del arbolado existente junto a la vía pública para evitar una posible caída sobre la misma.

2.º.- Previo a la tala del arbolado, se deberá solicitar licencia en el ayuntamiento, presentando un presupuesto de los trabajos a ejecutar, nombre de la empresa que va a realizar los trabajos y un plan de seguridad y salud donde se describa la manera de realizar la tala y las medidas de seguridad que se van a tomar para no afectar a las personas y la vía pública.

**14.- B. A. E.ren idazkia.-**

Kontuan hartuta B. A. E. aurkezturiko idazkia, Axpe auzoko 17.eko sarreran baranda bat jar dadin eskatzeko, etxetik ateratzean dagoen arriskua saihesteko, eta kontuan hartuta

**14.º.- Escrito de B. A. E.-**

Visto el escrito presentado por B. A. E. solicitando la colocación de una barandilla a la entrada de la casa n.º 17 del barrio de Axpe, para evitar el peligro existente a la salida de

egoera horrek udalerriko etxebizitza askori eragin diezaiekeela, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Arkitekto Aholkulariari txostena eskatzea azaldutako arazoa azter dezan.

la casa, y considerando que es una circunstancia que puede afectar a numerosas viviendas en el municipio, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó encargar un informe al Arquitecto Asesor que analice el problema planteado.

**15.- Hirigintza-baimenak.-**

**15.º.- Licencias urbanísticas.-**

Elorrieta jaunak adierazi zuen ez zegoela ados hirigintza-baimenei buruzko lau txostenen inguruan eztabaidatzearekin, haien inguruko dokumentazioa goiz horretan bertan igorri baitzitzaien posta elektronikoz; ondorioz, ez zuten izan astirik txostenok aztertzeko.
Idazkari jaunak jakinarazi zion dokumentazioa igorri zela Arkitektoak txostenak egin bezain laster, beti egiten dela horrela, baita dokumentazio elektronikoa igorri gabe ere. Esan zuen, halaber, horrela egin ezean, txosten horien ebazpena atzeratu egingo litzatekeela.
Elorrieta jaunak erantzun zion bera Alkate izandako legealdian txostenak deialdia egiten zenetik egoten zirela zinegotzien eskura.
Hori guztia ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:
1.- Hirigintza-baimenei buruzko 26/16 eta 42/16 txostenak mahai gainean uztea hurrengo Batzorde Informatzailean aztertzeko.
2.- Obra txikiko baimenei buruzko txosten guztiak Alkatetza Dekretu bidez ebaztea, eta ondoren horien berri ematea Osoko Bilkuran.

El Sr. Elorrieta manifestó que no estaba de acuerdo en que se debatiese sobre los cuatro expedientes de licencias urbanísticas cuya documentación se les ha remitido por correo electrónico esta misma mañana, dado que no han tenido tiempo para analizarla.
El Sr. Secretario le informó de que la documentación se había enviado en cuanto el Arquitecto había hecho los informes y que siempre se había actuado así, incluso sin remitir la documentación electrónica; también dijo que de otra forma se retrasaría la resolución de estos expedientes.
El Sr. Elorrieta replicó que, en su legislatura como Alcalde, los expedientes estaban a disposición de los concejales desde el momento de la convocatoria.
A la vista de todo ello, la Junta de Gobierno Local, acordó:
1.º.- Dejar sobre la mesa los expedientes de licencias urbanísticas 26/16 y 42/16 para su estudio en la próxima Comisión Informativa.
2.º.- Que todos los expedientes de licencias de obras menores serán resueltos mediante Decretos de la Alcaldía, de los cuales sean posteriormente se den cuenta en el Pleno.

**16.- Egurra ateratzeko landa-bideen erabilerarako baimena Explotaciones Forestales Egurmendi, S.L. enpresari-**

**16.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera de Explotaciones Forestales Egurmendi, S.L.-**

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Explotaciones Forestales Egurmendi, S.L. enpresari, P. S. V.ren izenean (3/16 Txost.), egurra ateratzeko landa-bideen erabilerarako baimena ematea, Itzurritxu mendiko 16. poligonoko 113. lursailean, Amunategi bidea erabilita eta 311,08 estereoan, Udalari egurra ateratzen hasten den unea jakinarazi behar izanda.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a Explotaciones Forestales Egurmendi, S.L. en representación de P. S. V. (Expte. 3/16), correspondiente al monte “Itzurritxu”, parcela 113 del polígono 16, utilizando el camino de Amunategi, en un número de 311,08 estéreos, debiendo comunicar al Ayuntamiento el inicio de la saca.

**17.- Busturlagun Kirol eta Kultur Elkartearen idazkia.-**

**17.º.- Escrito Asociación Deportivo Cultural “Busturlagun”.-**

Kontuan hartuta Busturlagun Elkarteak aurkezturiko idazkia, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen baimena ematea Aingerubide lokala erabil dezan Kardio Kick Boxing eskolak emateko, astearte eta ostiraletan 18:30etik 19:30era.

Visto el escrito presentado por la Asociación “Busturlagun”, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de utilizar el local de Aingerubide, para dar las clases de Kardio Kick Boxing a niños, en horario de 18:30 a 19:30, los martes y viernes.

| 18.- Busturialdea Tenis Kirol Elkartearen idazkia.- | 18.º.- Escrito de Busturialdea Tenis Kirol Elkartea.- |
|---|---|

Kontuan hartuta A. N. B.k Busturialdea Tenis Kirol Elkartearen izenean aurkezturiko idazkia, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen:

- Baimena ematea tenis-pista bat erabiltzeko larunbatetan, 11:00etatik 12:30era, haien ikastaroak emateko.
- Baimena ematea bi tenis-pistak erabiltzeko urriaren 22tik 30era, “Manuel Núñez X Trofeoa” dela eta.

Visto el escrito presentado por A. N. B., en representación de “Busturialdea Tenis Kirol Elkartea”, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a las siguientes peticiones:

- Permiso para el uso de una pista de tenis para los cursos que imparten los sábados de 11:00 a 12:30.
- Permiso para el uso de las dos pistas de tenis, del 22 al 30 de octubre, con motivo de la celebración “X Trofeo Manuel Núñez”.

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudan Idazkariak sinatuta.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde,

Fdo: Aitor Aretxaga Telletxea

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez